

# Hondakinak biltzeko zerbitzua Legorretan

■ **Bide publikoan dauden edukiontzien** bidez biltzen dira hondakinak.

■ **DERRIGORREZKOA** da hondakinak **BEREIZTEA** eta dagokien edukiontzira botatzea. **DEBEKATUTA** dago hondakinak lurrean uztea edo nahasian edukiontzietan sartzea!

Hondakinak **BEREZITA** bota behar dira edukiontzien **BARNERA**:



Papera  
eta kartoia



Beira



Plastikozko  
ontziak,  
metala  
eta brikak



Arropa



Sukaldean  
erabilitako  
olioa



Pilak



Kafe  
kapsulak

Birzikla daitezkeen hondakinak **asteko egun guztietan** atera daitezke, **edozein ordutan**.

## Materia organikoa



**TXARTELAREKIN  
irekitzen da**  
*Eska ezazu  
udaletxean.*

## Erabili soilik poltsa konpostagarriak!

Ontzi bat eta poltsa konpostagarriak ere emango dizkizute. Poltsak amaitzen zaizkizunean, beste batzuk doan lortuko dituzu poltsen makinan (ikusi informazio gehiago atzean).




## Hondakin birziklaezina "errefusa"



**TXARTEL  
BERAREKIN  
irekitzen da**  
*Eska ezazu  
udaletxean.*

Edukiontzia **SOILIK  
ASTELEHENETAN**  
ireki daiteke eguneko  
24 orduan.  
Gainerako egunetan  
itxita egongo da.



Organikoa **auzo  
konpostagailuetan  
ere** bota daiteke.  
Horretarako izena  
eman behar da Sasieta  
Mankomunitatean.

■ **Etxeko trasteak** (altzariak, etxetresna elektrikoak...) **hileko 2. eta 4.**  
**ASTELEHEN GAUEAN** atera behar dira.  
Utzi **edukiontzien ondoan**.



# Hondakinik onena sortzen ez dena!

- **OBRAKO HONDAKINAK**, zaborrak, paletak, txatarra, pneumatikoak, etab. beti **GARBIGUNERA** eraman behar dira. **Ordizian** dago gertuena, Oiangu bidean. Informazio gehiago hemen: [www.sasieta.eus](http://www.sasieta.eus)




## Ordutegia



Astelehenetik ostiralera  
**9:00-13:00 / 15:30-18:00**  
Larunbatean  
**9:00-13:00**

## ORDIZIA



- **Nola lortu POLTSA KONPOSTAGARRI GEHIAGO:**  
Poltsen makina **udaletxeko arkupetan** dago. Edukiontzia irekitzen dituen **txartelak** 10 astean behin poltsa bilkari bat **DOAN** lortzeko balio du.

- **EDUKIONTZI BEREZIA PIXOIHALENTZAT:**  
**Pixoihalak** sortzen dituzten pertsonek (haurrek, helduek) **EGUNERO** erabil dezakete edukiontzi hau. Horretarako, gainerako zerbitzuetarako erabiltzen den txartela aktibatu behar da.



**Txartela aktiba dezakezu eta gertuen dauden edukiontzien kokapena** kontsultatu **943 16 15 55** telefonora deituta.



- **MINIGARBIGUNEA hondakin txikientzat:** aparatu elektriko eta elektronikoak, informatika eta telekomunikazio gailuak, ontziak ez diren metal eta plastikoak, tinta eta toner kartutxoak, erradiografiak, bonbilak eta fluoreszenteak.

**Sartzen ez dena garbigunera eraman. Ez utzi hondakinik lurrean!**

## INFORMAZIO GEHIAGO

[www.sasieta.eus](http://www.sasieta.eus)



Zalantzaren bat baduzu, bi gidak kontsulta ditzakezu:

- **Horian, zer sar daiteke?**
- **Birziklatzea erraza da!**  
*Hondakinak zuzen bereizteko gida*

**ARRETA:** 943 16 15 55 (8:00-15:00)  
[info@sasieta.eus](mailto:info@sasieta.eus)



العربية



Română



English



Français



**SASIETA**

MANKOMUNITATEA

[www.sasieta.eus](http://www.sasieta.eus)